

Ebaluazio Atala
Sección de Evaluación



*Castildetierra
Errege-Bardeen Parke Naturala
Iturria: Nafarroako Turismoa
Egilea: Francis Vaquero*

Izen-abizenak:

Ikastetxea:

Ikastaldea/Ikasgela:

Herria:

Data:

**Euskarazko
Hizkuntza-
gaitasuna**

LHko 4. maila



Jarraibideak

Hiru zati dituen proba egingo duzu:

1. zatia - Entzunaren ulermena

“*Euskal Musika kanal berria*” izeneko testua **hiru aldiz** entzungo duzu eta entzundakoari buruzko galderei erantzun beharko diezu. Horrela egingo duzu:

- Lehenik, galderak irakurtzeko **bi minutu** izango dituzu.
- Ondoren, hiru aldiz jarraian entzungo dugu. Errepikapen bakoitzaren ondoren, minutuko bateko isilunea izango duzu galderak berriro irakurtzeko, erantzunak berrikusteko...
- Hirugarren aldiz entzundakoan, galderei erantzun badiezu, irakurriaren ulermena egiten has zaitezke.

2. zatia - Irakurriaren ulermena

Zati honetan **bi testu** irakurriko dituzu:

- *Salgai dago Golazen telesailaren liburu berria.*
- *Hezkuntza Departamentuaren ilustrazio eta ipuin lehiaketa.*

Irakurritakoari buruzko galderei erantzun beharko diezu. Hainbat galdera mota topatuko dituzu:

- Aukera anitzeko galderak: **hautatu zuzena** eta **borobildu** alboko hizkia. Adibidea:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A. Bartzelonak adina.
- ☒ B. 200.000 inguru.
- C. Milioi bat.
- D. Hainbat milioi.

Erantzuna aldatu nahi baduzu, gurutzatu **erantzuna X** jarritz eta **borobildu** erantzun zuzena:

Zenbat biztanle ditu Iruñeak?

- A. Bartzelonak adina.
- ☒ B. 200.000 inguru.
- C. Milioi bat.
- ☐ D. Hainbat milioi.

- Egia (E) ala gezurra(G) motakoak.
- Ideiak erlazionatzekoak.
- Puntuekin adierazitako espazioan erantzun beharrekoak:

Zein da Nafarroako hiriburua?.....

3. zatia - Idazmena

Zure eskolari buruzko gutun bat idatzi behar duzu:

- Idazten hasi aurretik, hainbat galdera topatuko dituzu; ez dituzu erantzun behar, ideiak emateko baino ez dira.
- Zirriborrea egitea **derrigorrezkoa** da horretarako utzitako espazioan.
- Behin betiko testua puntu-lerroetan idatzi behar duzu; ez da ezinbestekoa guztiak erabiltzea.



Proba hau egiteko 70 minutu dituzu.

1. zatia - Entzumena

EUSKAL MUSIKA KANAL BERRIA

1. Entzun duguna...

- A. Kontaketa bat da.
- B. Elkarrizketa bat da.
- C. Narrazio bat da.
- D. Azalpen testu bat da.

2. Non aurkeztuko du EITBk bere produktu berria?

- A. Durangoko azokan.
- B. Durangoko festetan.
- C. Telebistako iragarki batean.
- D. 24 ordutan.

3. Zein da aurkezten ari diren irrati kanalaren izena?

- A. EITB irrati kanal.
- B. 24 orduko Euskal kantan.
- C. EITB Euskal Kantak.
- D. 24 orduko kanala.

4. Kanal berri horretan entzun dezakegu Shakiraren azken kanta? Zergatik?

.....

.....

5. Nor da Iñigo Zeberio?

- A. Durangoko azokako arduraduna.
- B. Eitb telebista kateko arduraduna.
- C. EITBko musikako arduraduna.
- D. Euskal musika produktorea.

6. Markatu egia (E) ala gezurra (G) diren honako esaldi hauek:

	E	G
A. Durango azokako arduradunek sortu dute irratiko kanal berri bat.		
B. Irratiko kanal berri hori solik internetez entzun ahal duzu.		
C. Gauez ere irratiko kanal berri horretan edozein musika entzun ahalko duzu.		
D. Jendeak sekulako beharra zuen halako irrati kanala izateko.		

7. Osatu esaldia entzun duzunaren arabera:

Gaur egungo teknologiek aukera ematen dute...

- A. ...iragarkiak zabaltzeko.
- B. ...irrati berriak martxan jartzeko.
- C. ...elkarrizketak egiteko.
- D. ...albisteak emateko.

8. Kanal Berri honekin arazo bat konpondu nahi dute. Zein da arazo hori?

- A. Euskal musika asko dagoela eta dena ezin dela irratian jarri.
- B. Irratian musika guztia erdaraz dagoela.
- C. Jendeak ez duela euskal musikarik entzun nahi.
- D. Euskal abeslari asko dagoela.

9. Zenbat ordu eskainiko dizkiete egunean euskal kantei?

.....

.....

2. zatia - Irakurmena

Lehenengo testua

Salgai dago "Go!azen" telesailaren liburu berria

EITB MEDIA | <https://www.eitb.eus/eu/albisteak/>

Publikatuta: 2022/11/15 15:01 Azken eguneratzea: 2022/11/21 10:13

"Itsasargiko misterioa" izeneko liburuan abentura zirraragarria biziko dute Basakabiko lagunek.

"Go!azen" telesaileko pertsonaiak protagonista dituen liburu berria salgai dago dagoeneko. *Itsasargiko misterioa* du izena nobela berri honek, eta abentura ikaragarri batean murgilduko ditu Basakabiko lagunak.

Lur Gallastegik idatzi du Go!azen abentura bildumaren barruan sartu den liburu hau; marrazkiak, berriz, Alai Zubimendirenak dira. Aurreko liburuak bezala, hau ere Alai argitaletxeak kaleratu du.

Basakabiko inguruetatik kanpo, ilusioz beterik itsasaldera joanen dira gure lagunak. Ba ote da ezer zirraragarriagorik lagunekin gaua etxetik kanpo ematea baino? Eta zeresanik ez, toki hori itsasargi bat baldin bada eta misterioz josia baldin badago. Izugarrizko abentura biziko dute Basakabiko lagunek, kostaldeko herri batean eta hainbat urtetan gordetako misterioa argituko dute. Une misteriotsuak, umorea, laguntasuna, barre-algarak, baina ezustekoak ere kontatzen dira istorio honetan. Laguntasunak duen indarra argi geratuko da hasieratik bukaerara arte, ilargi beteko gau zoragarri batean bizi izandako pasadizo honetan. Era guzietako emozioak bizi ditzakezu, ez ezazu galdu!

Euskal Herriko liburu dendetan aurkitu daiteke abentura berri hau. Horrez gainera, "Go!azen" produktu guztiak Interneten edo EITB Dendan daude eskuragarri.

(Moldatuta)



'Itsasargiko misterioa' liburuak. Argazkia: EITB Media.

10. Zein testu mota da irakurri duzuna?

- A. Misteriozko ipuina.
- B. Albistea.
- C. Eleberri (nobela) baten zatia.
- D. Iragarkia.

11. Zein egunetan argitaratu da testu hau?

.....

12. Bete itzazu hutsuneak testuko informazioarekin:

“Itsasargiko misterioa” nobela _____-k idatzi du eta
_____ -k berriz marrazkiak egin ditu.

13. Zein argitaletzek kaleratu du “Itsasargiko misterioa” liburua?

- A. Alai argitaletxeak.
- B. Goazen argitaletxeak.
- C. Lur argitaletxeak.
- D. Eitb argitaletxeak.

14. Non topa dezakegu irakurritako testu hau?

- A. EITBko web orrian.
- B. Egunkarian.
- C. Aldizkari batean.
- D. Eskolako liburutegiko liburu batean.

15. Zer esan nahi du “liburua misterioz josita dagoela” esaldiak?

- A. Liburuan misterioa bilatu egin behar dela.
- B. Liburuan misterio gutxi dagoela.
- C. Liburuan misterio asko dagoela.
- D. Liburuan misterioak josi egin behar direla.

16. Markatu egia (E) ala gezurra (G) diren honako esaldi hauek:

	E	G
A. Liburuaren protagonistak beraien artean ezezagunak dira.		
B. Liburuak laguntasuna eta barre algarez gain, ezustekoak ere kontatzen ditu.		
C. "Itsasargiko misterioa" liburua Goazen telesailean oinarritutako lehenengo liburua da.		
D. Misterioak gustatzen bazaizkizu, liburu hau ez da zuretzako egokia.		

17. Basakabiko lagunek...

- A. ...izugarritzko abentura biziko dute Basakabin.
- B. ...mendialdeko herri bateko misterioa argituko dute.
- C. ...ilargi beteko gau zoragarri batean gertatutako misterioa argituko dute.
- D. ...aste bete irauten duen pasadizo honetan izugarritzko abentura biziko dute.

18. Testuan esaldi hau agertzen da: "Ba ote dago ezer zirrargarriagorik lagunekin gaua etxetik kanpo ematea baino?". Zer esan nahi du esaldi horrek?

- A. Lagunekin gaua etxetik kanpo ematea beldurgarria dela.
- B. Lagunekin gaua etxetik kanpo ematea ez dela ezer berezia.
- C. Lagunekin gaua etxetik kanpo ematea sekulako esperientzia dela.
- D. Lagunekin gaua etxetik kanpo ematea ez dela beste munduko gauza.

19. Bartzelonako dendaren batean eros daiteke liburu hau? Zergatik?

.....

.....

Lehenengo testuko galderen amaiera



Jarraitu irakurtzen

Bigarren testua

Hezkuntza Departamentuak Literatur Lehiaketarako deia egin du.
Hiru modalitate antolatu dira, haur eta gazteen adinaren arabera.
Modalitateetan eskola-mailaren araberako kategoriak daude:

IPUINA ILUSTRATU

A kategoria: ilustrazioa
HH

B kategoria: ilustrazioa
LH 1 eta LH 2

C kategoria: ilustrazioa
LH3 eta LH 4

**Haurrek Txanogorritxo
ipuina ilustratuko dute.**

BESTE AMAIERA BAT EMAN

D kategoria: ipuinak
LH 5 eta LH6

E kategoria: ipuinak
DBH1 eta DBH2

**Haurrek beste amaiera
bat asmatu beharko
dute Txanogorritxo
ipuin klasikorako.**

KOMIKIA SORTU

F kategoria: komikia
DBH3

G kategoria: komikia
DBH4

**Jasone Osororen Jara
eleberrian oinarritutako
komiki bat asmatu beharko
dute.**

LUZERA

Folio bakarra.

2 orri gehienez ere, alde
bakar batez idatziak,
ilustrazioak barne.

4 orri gehienez ere (azala
kanpo), alde bakar batez
idatziak, DIN A4 formatukoak
edo horren pareko neurrikoak.

SARIAK

1. saria

Hiru mahai-joko eta 60
euro eskola-materialetan.

1. saria

Tablet bat eta 70 euro
eskola-materialetan.

1. saria

Tablet bat, eta 80 euro eskola-
materialetan.

2. saria

Hiru mahai-joko eta 50
euro eskola-materialetan.

2. saria

Tablet bat eta 50 euro
eskola-materialetan.

2. saria

Tablet bat eta 60 euro eskola-
materialetan.

Parte hartu nahi baduzu, bidali eskaera helbide honetara:
Hezkuntza Departamentua, Santo Domingo kalea, 8 - 31001 Iruña.
Lanak aurkezteko epea 2023ko apirilaren 26an amaituko da.

20. Zure lau urteko lehengusinari zein modalitatetan parte hartzeko proposatu beharko zenioke?

.....

.....

21. Lotu esaldiaren hasiera dagokion bukaerarekin.

1. LH 3 eta LH 4 kategoriako ikasleek...	A. "komikia sortu" lehiaketan parte har dezakete.
2. LH 5 eta LH 6 kategoriako ikasleek...	B. "ipuina ilustratu" lehiaketan parte har dezakete.
3. DBH 3 eta DBH 4 kategoriako ikasleek...	C. "beste amaiera bat eman" lehiaketan parte har dezakete.

1.	
2.	
3.	

22. Markatu egia (E) ala gezurra (G) diren honako esaldi hauek:

	E	G
A. Lehiaketa honetan parte hartzeko, DBH4 mailako ikasleek eleberri bat irakurri behar dute lehenik.		
B. Hezkuntza Departamentuak lehiaketa honekin irakurzaletasuna eta sormena bultzatu nahi du.		
C. Komikien kategorian parte hartzen baduzu, hiru orriko lan bat aurkez dezakezu.		
D. Lehiaketan parte hartu nahi baduzu, zure lana e-postaz bidali behar duzu		

23. Lehiaketa honetan parte hartu nahi duten LH5 ikasleek...

- A. ...nahitaez bi orri idatzi behar dituzte.
- B. ...gehienez bi orri idatz ditzakete.
- C. ...ezin dituzte marrazkiak sartu.
- D. ...lana bi aldeetatik idatzita aurkeztu behar dute.

24. Ekainaren 12an aurkeztu ahal izango duzu zure lana? Zergatik?

.....

25. Nor da Jasone Osoro?

- A. Idazle bat.
- B. Ilustratzaile bat.
- C. Lehiaketa honen antolatzaile bat.
- D. Hezkuntza Departamentuko langile bat.

26. Hiru mahai-joko eta 60 euro eskola-materialetan irabazi nahiko bazenitu, zein modalitateko saria irabazi beharko zenuke?

- A. "Beste amaiera bat eman" modalitatean, 1. saria.
- B. "Ipuina ilustratu" modalitatean, 1. saria.
- C. "Komikia sortu" modalitatean, 2. saria.
- D. "Ipuina ilustratu" modalitatean, 2. saria.

27. Zer helburu du testu honek?

- A. Idazlea izateko zer egin behar den azaltzea.
- B. Lehiaketa batean parte hartzeko informazioa ematea.
- C. Ipuin lehiaketa bateko sariak zein diren erakustea.
- D. Ilustrazio, ipuin eta komiki erakusketa bateko informazioa ematea.

Bigarren testuko galderen amaiera



Jarraitu irakurtzen

3. zatia - Idazmena

28. Aurreko astean jakin zenuen zure gelara Balal izeneko Saharako ikasle bat etorriko dela. Idatzi gutun bat zure eskolari buruz.

Kontaketan ideia hauek erabil ditzakezu:

- Aurkeztu zure burua.
- Hitz egin eskolari buruz:
 - o Eskolaren deskribapen txiki bat.
 - o Zer egiten duzun eskolan egun batean.
- Zer den eskolatik gehien edo gutxien gustatzen zaizuna.

ZIRRIBORROA egitea derrigorrezkoa da.

1. paragrafo	
2. paragrafo	
3. paragrafo	

ORAIN TESTUA IDATZIKO DUT:

Ongi erabili letra larriak eta zaindu ortografia.

Erabili puntuak, komak eta paragrafoak.

Kaixo, Balal:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Zu ezagutzeko irrikitan nago. Laster arte eta besarkada handi bat!

Irakasle zuzentzaileak erabili eta bete beharreko puntuazio-taula

Atala		Puntuazioa 0 / 0,25 / 0,5 / 1
Plangintza		
Txukuntasuna		
Ortografia		
Gramatika-zuzentasuna		
Hiztegi-aberastasuna		
Egokitzapena		
Koherentzia		
Kohesioa	Lokailuak	
	Kohesioa mekanismoak	
	Puntuazioa eta paragrafoak	
28. itema – Osotara:		/10